



Euskararen berri OLAtu gainean

2019ko UZTAILA ABUZTUKO ALBISTEAK

[“Belaunaldi berrientzat euskararekiko ildo propioak moldatu behar dira”](#)

Euskal kulturgintzaren inguruko laurogeitik gora aditu, besteak beste, EAEko hizkuntza-politiken arduradun, euskaltzain, soziolinguista, unibertsitateko irakasle eta beste elkartu dira gaur goizean *Euskara biziberritzen jarraitzeko bide berriak* izeneko mintegian. Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolatu dute jardunaldia eta euskara biziberritzeko bide berriez gogoeta egitea izan du helburu, hainbat alderditik ikusita.

[2020ko Euskaraldia: lekutan dago... edo ez!](#)

Euskaraldiaren lehenengo edizioa bukatzearekin bat zabaldu zen mezua: ariketa sozial erraldoiek jarraipena behar dute, eutsi egin behar zaio irabazitako pulsuari. Eta, hara: ekainaren hasieran egin zen, Donostian, Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkezteko mintegia. 2020ko udazkenean egingo den edizio berriko xehetasunak aipatu zituzten bertan.

[Eusko Jaurlaritzak 1.850.000 euro onartu ditu enpresetan euskara planak egiten laguntzeko](#)

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, 1.850.000 euro onartu ditu Lanhitz deialdirako, iaz baino 200.000 euro gehiago. Dirulaguntza lerro honen helburua da Euskadiko enpresei laguntzak ematea euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko beren lantokietan. Laguntza hauek jasoko dituzten enpresek diru kopuru bat izango dute euskara planak garatu ahal izateko. Iazko deialdiaren bitartez 49.971 langile dituzten 136 enpresa lagundu ziren.

[Gazteen arteko harremanak euskaraz eraiki dituen espedizioa](#)

"Kristona". "Oso-oso ondo". Horrela definitu dute Mattin Rafu begiraleak eta Ane Artola gazteak Euskarabenturaren espedizioa, hurrenez hurren. Uztailaren 1ean Mauletik abiatu eta, jzioquitarrak deituriko parte hartzaileak Getxora ailegatu ziren uztailaren 31n.

[Euskarazko irakaskuntzaren aldeko 50 urteko borroka](#)

50 urte bete ditu aurten Seaskak, Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioak. Egun, 3.600 ikasle biltzen ditu 36 ikastetxetan. Murgiltze eredu hasi eta buru eskaintzen duen sare bakarra dugu. Sortu zen unetik, etengabe egin behar izan du borrokan. (Erreportaje hau Aktualitatearen gakoak aldizkarian argitaratu da. Aldizkari osoa nahi baduzu Argiako azokan eros dezakezu.) Haste hartan, Arrangoitzen du hazia Seaskak, 1969an, eta ama bat izan zuen aitzindari: Argitxu Noblia Richard. Haur txikiak zituen, eta lanean ari zen. Oraingo egunean bezala, lehenengo amak lagundu zion haurrak zaintzen, baina horrek ez zuen luze iraun ahal. Nobliak berak kontatu zigun Argian (2.201 zbkia).

[\[Zinemaldia 2019\] Euskaraz mintzo diren filmak](#)

Donostiako Zinemaldiak, 67. edizioaren atarian gauden honetan, jaialdian izango den euskal ekoizpenaren berri eman dute; guztira hogeita bat film. Guzti horietatik **hamahirutan hitz egiten da euskaraz**, eta hauexetan jarriko dugu arreta. Ohi bezala, euskarazko film gehienak Zinemira atalean proiektatuko dira, eta aurten euskararik ez da entzungo Atal Ofizialeko pantailan, azkenaldian urtero bateren bat izan dugun arren (*“Loreak”, “Amama”...*).

